

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1822

AGINDUA, 2021eko martxoaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira Fundación Instituto Gerontológico Matía-Ingema izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketak.

2020ko azaroaren 26an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistroan telematikoki sartu zen Fundación Instituto Gerontológico Matía-Ingema izeneko fundazioaren estatutuak aldatzeko eskritura publikoa, zeina 2020ko urriaren 15ean egiletsi baitzen Martin Gabarain Astorqui Donostiako notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.233).

Eskritura publiko horretan sartu zen Fundazioaren Patronatuko idazkari Jose Luis Larumbe Martin jaunak, presidentearen oniritziarekin, 2020ko ekainaren 24an egindako ziurtagiria, patronatuak 2020ko ekainaren 24an egindako bilerarena. Biler horretan, aho batez erabaki zen estatutuetako 8. eta 10. artikulua aldatzea, patronatuari eta haren ahalmenei buruzkoak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu baten bidez, estatutuak aldatzeko espediente horri buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatzeakoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Fundación Instituto Gerontológico Matía-Ingema izeneko fundazioaren estatutuen 8. eta 10. artikuluen aldaketak, patronatuari eta haren ahalmenei buruzkoak. Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen aldaketok egitea, 2020ko ekainaren 24an, eta erregistroko inskripzioa egingo da, betiere, 2020ko urriaren 15ean Martin Gabarain Astorqui Donostiako notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorritik (protokolo-zenbakia: 1.233).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-erre-

2021eko martxoaren 26a, ostirala

kurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 11.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.